

2003KO GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA - FINALA

Maialen Lujanbio Gipuzkoako Txapeldun


■ Maialen Lujanbiok merezimendu guztiz irabazi zuen txapela ■ Bigarren Jon Martin izan zen pronostikoa guztiak puskatuta ■ Mendiluzek eta Irazuk ere saio ederra egin zuten atzo Irunen.

MAIALEN Lujanbiok irabazi du 2003ko Gipuzkoako txapelketa. Lujanbio Jon Martin oiaztuarraren kontra jokatu behar izan zuen azken duelo emozionantea. Hirugarren postua Aitor Mendiluzek lortu zuen; laugarrena Jon Maia; bosgarren Iñaki Gurrutxaga; seigarren Jexux Mari Irazu; zazpigarren Ekaitz Goikoetxea; eta zortzigarren Amaia Agirre.

Mendiluzek eta Irazuk saio ona egin zuten atzo Irunen, eta baita gainerako bertsolariek ere. Irunen bildutako 3500 pertsonek gogoz txalotu zituzten bertsolari guztiak eta giro paregabea jarri zuten Artaleku kiroldegin.

Final mundiala

Bertsolari guztien arteko berdintasuna eta maila ona izan dira aurtengo txapelketaren ezaugarri nagusia. Lujanbio eta Martin brillante aritu ziren



Maialen Joanjo Uriak jantzi zion txapela.

saio guztian zehar, baina, denek izan zuten gogoan haritzeko moduko momenturik. Bestalde, aipatzeko modukoa izan zen atzoko finalean lau

gazteenek eman zuten maila. Hori izan zen hain zuzen, saio ondorenean aho batez jendeak eta bertsolariek aipatu zutena.

Finala bi fasetan

Aurtengo finala bi fasetan jokatu da. Lehen fasean zortzi bertsolarien 15na bertso kantatu zituzten, eta horitz bi onenak pasatu ziren bigarren fasera. Nahiz eta azken faseak izan emozio punturik haundiarena, lehenengoan ere jendea oso gustora egon zen, gehien bat, zortzi bertsolarien maila onak eta beraien arteko alde txikiak eraginda. □

Joanjo Uria hernaniarrak eman zion Maialen Lujanbiori txapela. Uriari errekonozimendua egin nahi izan zaio bertsolaritzari urte askoan egindako ekarpengatik. Uriak honako bertsotau zuen:

"Txirritan berri nik izan nuen
Oraindik ume nintzala
Ederki asko ezagutzen zen
Izango zuen itzala
Bera Hernanin gazteik hasi zen
Hemen Maialen bezala
Ta gaur entzunda uste det nere
Aurrean dadukadala
Gure herrian gaurdanik beste
Txirrita haundi badala"

Afrikar artisauen erakusketa eta azoka ostirala arte Biterin

■ Arratsaldeko 17:00etik 20:00etara dago irekita.

AFRIKAKO artisauen era-kusketa izango da Biterin gauean hasi eta ostirala arte. Erakusketa Urrats misio taldeak eta parrokiko gazte taldeak antolatu dute eta Afrikako misiolarien (Padres Blancos) bitartez iritsi dira pieza hauetan Hernanira, beraien Afrikan bertako artisauak lanean ari dira-eta.

Erakusketa honetan ikusi

daitezkeen lanak dira, ebanozko figurak, oihalak, musika instrumentuak eta bitxiak. Erakusketa dauden lanak salgai daude eta ateratzen den dirua misiolariei emango zaie. Erakusketa honen asmoa da Afrikako artea, kultura eta aberastasuna munduan zabaltzea eta Afrikako artisauak duin bizi ahal izateko dirua ateratzea. □



Ebanozko figurak, oihalak, musika instrumentuak, eta abar daude.

Izena emateko azken eguna gaur pelota euskaraz erakusteko ikastaroan

PELOTA erakusteko ikastaroa antolatu dute Buruntzaldeko Udalak kiroleko eta euskarazko zerbitzuek. Izena emateko epea gaur bukatzen da eta ikastaroa abenduaren 22tik 30era izango da. Apuntazeko kiroldegira joan behar da. □

Kartzelako sistemaren inguruko hitzaldiak aste honetan Andragoton

ASTEAZKENETIK hasi eta larunbata arte egunero izango dira hitzaldiak Andragoton. Hizlariak talde ezberdinak izango dira eta denak ere espoxeari buruzko hitzaldiak emango dituzte. Asteazkenean arratsaldeko 19:30etan Iñigo Elkorok, TATEko kideak, torturaren inguruko hitzaldia emango du. Ostegunean Joxan Pagola Beltzak, aurten kartzelatik ateratako hernaniarrak, espoxearen amesgaiztoaz hitz egingo du arratsaldeko 19:30etan. Ostiralean, Cesar Manzanaresek, EHUKO irakaslea eta Salhaketa taldeko kideak, emakume atxilotuei buruz arituko da arratsaldeko 20:00etan. Larubatean aldiz, Alaitz de la Cruz soziologoaren txanda izango da eta espoxeko egoerari buruz arituko da arratsaldeko 19:45etan hasita. □

Inzineradorari buruzko hitzaldia asteazkenean

INZINERADORA bai ala ez izeanarekin hitzaldia izango da asteazkenean arratsaldeko 19:30etan Biterin. Hizlariak izango dira: Kepa Olaiz, Ekologistak Martxan taldeko kidea; Jacinto Albisu, Arnasa plataformako bozeramailea eta Alvaro Osle, Arnasa plataformako bozeramailea. Ostegunean aldiz kontzentrazioa izango da Urnieta plazan arratsaldeko 18:00etan. □

AITOR PEÑA - COVIRAN - Larramendi 5 - 943 33 31 03

Zure betiko denda, orain
AITOR PEÑA
coviran
Eskaintza onenak :
Fruta Berdura Harategia Txarkuteria Bolleria Drogeria Perfumeria

AMEGAR
Etxe tresnak Altzariak
Elektrogailuak TB- Bideoak- HI-FI-Opariak
Sukalde altzariak

Tel.: 943 55 11 25
Faxa: 943 55 16 30

MENABI-k INSTALAZIO BERRIEN ATEAK ZABALDU DITU.
Menabi, Škoda Kontzesionario Ofizialak, erabat berriro ditu bere instalazioak eta inauguratza dijoi. 1500 m² baino gehiago Škoda-rentzat bakar-bakarrik: auto berri eta erabilien erakustokia, tailerra, errekanbioak eta bezeroentzako aparkalekuak.
Ospatzeko, prezio bereziak gama osoan abenduaren 31 arte.

MENABI Txingurri pasealeku, 26 · Tel. 943 40 42 43 · **Donostia**

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarte. Errakazioa: argazkiak eta publizitatea: Hernani Komunikazioak: J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre, N. Legarreta eta A. Zerain. Egoitza: Larramendi 11. ☎: 943-330899. Faxa: 943-336306. Eposta: kronika@topagunea.com. Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.

MUSA - ELKARTE ARTEKOA



Peña Otaño elkarteko Sagarna eta Perez txapeldun

■ Bigarren Elur Txoriko Bilbao eta 'Tturko' gelditu dira.

JUAN Ignacio Sagarnak eta Luis Perezek irabazi dute elkarteko arteko mus txapelketa. Peña Otañoko bikoteak Bilbao eta Ormazabal Turkoren kon-

tra irabazi dute aurtengo finala. Hirugarren eta laugarren postuan Gure Txoko elkarteko bikoteak gelditu dira: Pavon-Pavon II eta Vicente-Rekalde,

hain zuzen ere. Sari banaketa larunbatean izan zen, aurtengo txapelketa antolatu duen Karobi elkartean. 2004ko txapelketa Elur Txorik antolatuko du. □

FUTBOLA

Hernanik 3-1

Vasconiaren kontra

EMAKUMEZKOEN ligan Hernanik 3 eta 1 galdu zuen atzo Vasconiaren kontra. Hernaniko taldeko gola Araitz Irazuk sartu zuen. Partidu polita egin zuen Hernanik, aurreneko zatia bana berdinduta bukatu zuten baina bigarren zatian izandako bi despisteren ondorioz etorri ziren Vasconiaren golak. □

ERRUGBIA

Hernani ezin izan zuten gainditu

LIGA Nazionaleko Hernanik taldeak Gernikaren aurka 27 eta 9 irabazi zuen. Temporadako 8garren partidua zen hau eta zortzik zortzi partidu irabazi ditu Hernaniko taldeak. Datorren astean aurreneko bueltako azkeneko partidua jokatuko dute bigarren postuan dagoen Durangoren aurka. □

PELOTA

4 hernaniar datorren astean finalean

GIPUZKOAKO Txapelketako finalak datorren ostiralean jokatuko dira Hernanin. Finalean Ezeiza eta Arregi kadete mai-lako bikotea izango da. Gorrotxategi (Añorgako taldearekin) eta Erroizenea (Intxaurrondo-koko taldearekin) hernaniarrak ere han izango dira. Ojuel eta Aizbitarte finalean egongo diren erabakitzeko dago. □

JASOTA BEZALA

Etxebizitza arazoaren erantzukizunei buruz

Ezagunak zaizkigu denoi egun, etxebizitza bat lortzeko ditugun arazoak.

Egoera jasanezin honen erantzukizuna, jarrera jakin bat mantentzen duten eragileetan aurkitzen dela azpimarratu nahi dugu. Jarrera hori, guzion etxebizitza beharraz baliatuz dirua egitea da eta horretan dihardute basketxe, espekulatzaile partikular, konstruktora, inmobiliaria zein erakunde publikoak.

Honen aurrean dauden aukerak, erantzuleen zerrendan sartu edo beraien eraginpean gure bizitza ekonomikoki baldintzatu edo egoera honi aurre egitea dira. Eta noski, azken aukera hau hartzen dutenek, parean izan ohi dute, kasan kasu implikatua dagoen erantzulea.

Honen erakusle ditugu, hutsik zegoen etxebizitza bati, jabearen baimenik gabe erabilera ematea erabaki dutenen kontra, azken aldi-an izan diren bi gertaera. Bata, Ereñotzuko bi bizilagunek jasan dute. Bizi ziren etxetik, hiru egune-

ko epean irten behar zutela ohartaraziz joan zitzazkien poliziak azaroaren 25ean, agindu judizialik gabe gainera. Biak, uztailean deklaratzen izan ziren auzitegiko epaile batzen aurrean. Bestetik, Kardaberaz kaleko bizilagun batek ere, auzitegira deklarazioa egitera joan behar izan zuen pasa den astean. Hiru pertsona hauei "usuración" delitua leporatu diete.

Kasu hauetan etxeen jabeek hartutako jarrera, etxebizitzaren

problematikan lehenagotik ere zeukan erantzukizuna, biderkatu besterik egiten ez duela adierazi nahi dugu.

Egungo egoera hau iraultzeko, kaltetuak garenon artean, erantzuleei aurre egingo dieten jarrerak zabaltea ezinbestekoa da eta okupazioa, jarrera horren adierazlerik indartsuetaikoa da.

Okupazioa aurrera!
Gorka De La Fuente
Ate Joka



Iturriaga, 3 - ☎ 943 556 564 - HERNANI

HITZ BITAN

GURE ETXOLA



Adi-adi jarraitu zitzuten sukaldariaren azalpenak.

Gabonetako sukaldaritza ikastaroa. Ostegun eta ostiralean Gabonetako sukaldaritza ikastaroa antolatu zuten Gure Etxolan. Irakaslea D. Iñaki Ubiria sukaldaria izan zen eta bertara emakume asko hurbildu ziren. □

KIROLA ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA		Emaitza	PELOTA		Emaitza
Goren.	Anaitasuna-Hernani	2-3	Infantilak	Gipuzkoako Txapelketa	
Emakum.	Hernani-Vascoña	1-3	Infantilak	Ametza-Lazkao / Kuku	18-11
Gaz. Eusk.	Hernani-Bibiana	2-1	Kadeteak	Gamendia-Otaegi/Gazteleku	18-03
Gaz. 1	Hernani-Betigazte	0-0	Kadeteak	Ezeiza II-A negi/Gazteleku	22-18
Kad. O. h.	Hernani-Texas	2-0	Kadeteak	Ojel-Aizkio/Añorga	22-18
Kad. 1	Real Union-Hernani	0-1	Jubenilak	Ramos-Huizi/Zauratz	22-19
Haur O. h.	Hernani-R. Sociedad	0-17	Jubenilak	Ametza-Urkia/Azpiluri	17-22
Haur 1	Martutene-Hernani	10-0	Nagusiak	Alvarez-S. Sebastian/Lazkao	22-02
			Palet Nagu.	Mansidor-Martin/Kuku	19-30
			Palet Jube.	Egen-Lucas/Amondo-Lujambio	22-30
			WATERPOLO		
Neskak	Rekalde-Hernani	2-3	Euskal Liga	Hernani-Pampinba	8-7
Mutilak	Rekalde-Hernani	1-3	ERRUGBY		
			Liga Nazio.	Hernani-Gernika RT	27-09

MARY CLARACO ALONSO

Andrea

Atzo hil zen Hernanin, 74 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-



Senarra: Julio Gonzalez; seme-alabak: Julio Luis eta Consuelo Ayerbe, Maria Jose eta Joxan Urdangarin; bilobak: Paul eta Maialen, Amaia eta Ane; senideak: Dolores eta Jose Ramon (+); ezkon anai-arrebak; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arron etor zaiteztela **GAUR, ASTELEHENIA** arratsaldeko **ZAZPIETAN, JUAN BATAIAZALEA** parroki elizan egindo den hiletara. Aldez aurretek, mila esker.

Hernanin, 2003ko abenduaren 15ean

Helbidea: Txirrita, 3 - 1 B
Oharra: Gorputz laguntza familia artean egingo da. Behilategia Orbegozo Tanatorio berrian dago (kiroldegia ondoan).

IRAGARKI MERKEAK

Sutarako egurra daukagu salgai, moztua eta lehorra. Prezio onean. Deitu: 943 55 07 45

Jubilazioa dela eta, martxan dagoen arrandegia saldu edo alokatuko genuke prezio onean. Deitu: 943 55 61 83

Furgoneta isotermoa daukagu salgai. Interesatuek deitu: 656 78 15 78

Gela bat alokatzen da, zentroan. Oso egokia kontsulta lanetako (fisioterapia, abokatuak, psikologo, ...). Interesatuek deitu: 943 55 46 97

ZERBITZUAK

FARMAZIAK

ASTELEHENIA	ASTEARTEA
► TELEFONOAK	
► Taxiak: 943 550093	► Egunez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738
► Udalzaingoa: 943 333288	► DYA: 943 464622
► Anbulatorioa: 943 006666	► Anbulatorioa: 943 331103
► Jokalari anonimoak: 943 331103	► Gauzez: Diaz Andoain. Nagusia 19 ☎ 943 592057

Aldaba joka

Hernani: ahozko historia txikia

Egilea: Urko Apaolaza

Argitaratzailea:



Salgai:
Lete, Sebas eta Leokadistin
15 euro

Doberako baxkide eta
Kronikako laguntzaileentzat
12 euro (Doberan - Larramendi 11)

